

KOSTUAK

Gure proiektua bukatzeko, kostuak kontuan hartzea beharrezkoa da gero horrekin, gure diru-sarrerak kalkulatu eta etekina aterako dugula bermatzeko. Horretarako, lehenik kostuak identifikatu eta sailkatu behar dira. Gero, kostu horien eta gure zerbitzuarekin eskaini nahi duguna kontuan hartuta, estrategia ekonomiko on bat aukeratu behar dugu.

Eigel proiektua aurrera eramateko kostu finkoak izango dira gehienbat. Lehenik eta behin, bizikletak erosteko hartu beharko dugun maileguaren ordainketa da kostu finkoa. Bestalde, gure soldatak ere printzipioz finkoak izango dira, proiektua martxan jarri bitartean aldaketak egon daitezkeen arren. Webgunearen sorkuntzan adituak webgunea egoera onean mantendu dezaten enpresei ordaindu beharreko dirua ere finkoa izango da, hilabeteko kuota jakin bat ordaindu beharko baitugu.

Kostu aldakorrei dagokienez, ia proiektu guztiak bezala gureak ere baditu. Lehenik elektrizitatearena, izan ere, azken urte hauetan garbi ikusi den bezala, argi indarraren kostua oso aldakorra da, hainbat aspekturen arabera delako. Horrez gain, bizikleten, aplikazioaren eta aparkatzeko guneen matxurak ere kostu aldakor bat suposatuko du, aurreikusi ezin diren gertaerak baitira. Bestalde, txartela sortu eta eskuratzeko prozesuko kostua ere aldakorra da, hori egiteko, Oarsoaldeko herrietako paper-dendatan egongo da aukera eta toki guzti hauetan 5€-ko kostua izango du, eskariaren arabera, guk ekoitzi beharreko txartel kopurua aldatu egingo da.

Gure negozioak low-cost estrategia erabiliko du, izan ere, gainerako zerbitzu motekin errentagarria izan behar du. Esate baterako, autobusaren zerbitzua baino garestiagoa eskaintzen badugu, kontsumitzaileek nahiago izango dute bestea erabili merkeagoa delako. Gainera, gure proiektuaren helburua luxuzko zerbitzu bat eskaintzea ez denez, argi dago ez dugula balioan oinarritutako negozio-eredua izango. Gure helburu nagusia bezero talde zabal batengana iristeko denentzat eskuragarria den prezioko garraio zerbitzu ekologikoa eskaintzea da, beraz, low-cost estrategia da guretzako egokiena.

Laburbilduz, gure proiektuan gastu nabarmenenak kostu finkoetan egon arren, hainbat faktorerengatik baldintzatuak ikusiko diren kostu aldakorrak ere ditugu. Horren harira, gure proiekturako estrategia eraginkorrena low-cost estrategia dela ondorioztatu dugunez, merkatuan nabarmentzeko hartuko dugun estrategia low-cost estrategia izango da.